

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA ESKOLA
OFIZIALAK.**

OINARRIZKO MAILAREN ZIURTAGIRIA LORTZEKO PROBA.

IKASLE LIBREAK

2007-2008 IKASTURTEA

PROBAREN HELBURUA


Azterketariak aztergai den hizkuntza oro har komunikazio-helburuetarako zenbateraino menderatzen duen neurtzen du hizkuntza bakoitzerako ziurtagiriaren probak. Ikasleak, ahozko testuak eta idatzizkoak ulertzeko eta ohiko komunikazio-egoeretan ahoz nahiz idatziz adierazteko, bere jakintzak, trebetasunak eta baliabideak noraino baliatzen dituen ikusiz neurtzen da komunikatzeko gaitasun maila hori. Proba hauetan ez dira ebaluatuko, ez eta gainerako trebetasunetatik bereizita neurtuko ere, hizkuntzari buruzko ezagupen formalak.

Oinarrizko Maila honen probaren mailak Europako Kontseiluaren A2 mailaren eskumenak hartuko ditu erreferentziazat, Hizkuntzentzako Europako Erreferentzia-Markoan maila hau zehazten den moduan.

Informazio gehiagorako ikus:


Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntzen Irakaskuntza Berezien Oinarrizko Mailari dagokion Curriculumak.

www.eoieuskadi.net



AZTERKETAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

- Azterketaren iraupena: 2 ordu, modu honetan banatuta: 1:45 ordu irakurritakoaren ulermenari, entzundakoaren ulermenari eta idatzizko adierazpenari dagozkion probetarako –saio bakarrean banatuko da denbora hori– eta 15 minutu ahozko adierazpen probarako. Azken hau beste saio batean egingo da.
- Oinarrizko Mailaren Ziurtagiria lortzeko azterketariak proba edo atal bakoitza gainditu beharko du: irakurritakoaren ulermena, entzundakoaren ulermena, ahozko adierazpena eta idatzizko adierazpena. Atal bakoitzean lortutako puntuazioak ez du orekatuko besteetan lortutakoa.




PROBEN DESKRIBAPENA:

IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

| EGIN BEHARREKO ARIKETAK | PUNTUAZIOA, GUZTIRA | GUTXIENKO PUNTUAZIOA | IRAUPENA |
|-------------------------|---------------------|----------------------|-----------|
| 3 | 20 puntu - %25 | 12 puntu | 40 minutu |

| Helburuak | Testu-mota posibleak | Ariketa-mota posibleak |
|---|---|---|
| <p>1. Eguneroko bizimoduko gertaera batekin lotutako informazioa bereiztea.</p> <p>2. Testuaren ideia nagusiak ulertzea.</p> <p>3. Testua zehatz-mehatz ulertzea; eskutitz pertsonal bat, adibidez.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • informazio-liburuxkak • argibide-orriak • egunkari eta aldizkarietako interes orokorreko artikuluak • liburu eta filmen aipamenak • publizitate-iragarkiak • eskutitz pertsonal errazak • merkataritza-eskutitz errazak | <ul style="list-style-type: none"> • Erantzuna: aukera ugari • Egia-gezurra • Informazio-transferentzia • Ordenan jartzeko lanak • Elkarrekin lotzea: (epigrafea testu batekin...) • Hutsuneak betetzea (esaldiekin edo hitzekin) • Erantzun bakarreko galdera irekiak |

**ENTZUNDAKOAREN ULERMENA**


| EGIN BEHARREKO ARIKETAK | PUNTUAZIOA, GUZTIRA | GUTXIENEO PUNTUAZIOA | IRAUPENA |
|-------------------------|---------------------|----------------------|-----------|
| 2 / 3 | 20 puntu - %25 | 12 puntu | 20 minutu |

| Helburua | Testu-mota posibleak | Ariketa-mota posibleak |
|--|--|--|
| 1. Modu selektiboan ulertzea. 2. Informazio nagusia ulertzea. | <ul style="list-style-type: none"> • elkarrizketa arruntak, informalak • banketxeetako, dendetako... elkarrizketak • iragarki publikoak eta publizitate-iragarkiak • telefono bidezko mezuak • albiste laburrak • eguraldi-iragarpenak | <ul style="list-style-type: none"> • Erantzuna: aukera ugari • Egia-gezurra • Informazio-transferentzia • Informazio batzuk besteekin lotzea • Erantzun bakarreko galdera irekiak |

IDATZIZKO ADIERAZPENA

| EGIN BEHARREKO ARIKETAK | PUNTUAZIOA | GUTXIENEO PUNTUAZIOA | IRAUPENA |
|-------------------------|------------------------|----------------------|-----------|
| 2 | 20 (5 +15) puntu - %25 | 12 puntu | 45 minutu |

| Helburua | Testu-mota posibleak | Ariketak |
|--|--|--|
| 1. Informazio zehatza ematea formatu labur eta errazean. | <ul style="list-style-type: none"> • mezu elektronikoa • postala • oharra | Mezu, postal edo ohar bat idaztea (Gutxi gorabehera 40 hitz) |
| 2. Informazioa, argibideak eta jarraibideak ematea / eskerrak ematea / barkamena eskatzea / nork bere buruari edo inguruari buruz idaztea / gertaera bat deskribatzea / zerbitzu bat eskatzea / informazioa eskatzea | <ul style="list-style-type: none"> • eskutitz pertsonal laburra • eskutitz formal erraza • gertaera baten deskribapen laburra | Testu motz bati edo jarraibide batzuei erantzunez eskutitz, deskribapen edo istorio bat idaztea. (Gutxi gorabehera 110 hitz) |



AHOZKO ADIERAZPENA


| EGIN BEHARREKO ARIKETAK | PUNTUAZIOAK | GUTXIENENKO PUNTUAZIOA | IRAUPENA |
|-------------------------|-------------------------|------------------------|-----------|
| 3 | 20 (4 +8+8) puntu - %25 | 12 puntu | 15 minutu |

| Helburua | Testu-mota | Ariketak |
|--|--|--|
| 1. Nork bere burua aurkeztea | bakarrizketa | Nork bere burua aurkeztea txartel bateko galderei eta aztertzaileak egindako beste batzuei erantzunez. |
| 2. Eguneroko bizimoduko gai baten inguruan labur-labur solas egitea. | beste azterketari batekin edo batzuekin elkarrizketa | Bi edo hiru azterketariren artean elkarreragite bat ezartzea, txartel batean emandako argibideetan oinarrituta. |
| 3. Proposamenak egitea, akordio batera iristen saiatzea... | beste azterketari batekin edo batzuekin elkarrizketa | Bi edo hiru azterketariren artean elkarreragite bat ezartzea, euren artean proposamenak egiteko eta akordio batera iristen saiatzeko. Emandako informazioan oinarritu beharko dute horretarako: agenda pertsonala, kultura-agenda, mapa... |

Oharra: Azterketariek ez dute denborarik izango ariketak prestatzeko.

Idatzizko adierazpenari dagozkion ariketak ebaluatzeko irizpideak

| IRIZPIDEA | EBALUATUKO DA |
|---------------------|---|
| Egokitzapena | <ul style="list-style-type: none"> • Idatzitako testuaren ulergarritasuna eta emandako lana betetzea. • Esakunean eskatutako aspektuak jaso izana. • Eskatutako formatura egokitu izana (eskutitza, postala, oharra, argibidea...). • Hartzailearen, helburuaren eta egoeraren arabera erabilitako erregistroa. |
| Lotura | <ul style="list-style-type: none"> • Informazioaren eta ideien antolaketa; diskurtso-lokailuen eta puntuazio-zeinuen erabilpena. |
| Zuzentasuna | <ul style="list-style-type: none"> • Gramatikaren eta sintaxiaren erabilpena eta hiztegiko elementuen hautaketa. • Gramatika, sintaxia eta lexiko aldetik dauden akatsak eta akats horiek testuaren ulergarritasunean eta egokitasunean duten eragina. |



Ahozko adierazpenari dagozkion ariketak ebaluatzeko irizpideak



| IRIZPIDEA | EBALUATUKO DA |
|--------------------|--|
| Egokitzapena | <ul style="list-style-type: none"> • Aztertzailak eta beste azterketariak egindako galderen ulermena. • Azterketariaren ahozko produkzioaren ulergarritasuna. • Agindutako lana bete den. • Eskatutako formatuari lotu izana (hitzaldi elkarreragilean, adibidez, hitzaren txandak eta lankidetzaz-estrategiak eta komunikazioari eustea). |
| Jarioa edo etorria | <ul style="list-style-type: none"> • Lokailuen eta doinu-patroien erabilpen egokia. • Etorria eta naturaltasuna, komunikazioari eusteko eta emandako lanaren arrakasta bermatzeko beharrezko diren neurrian. |
| Zuzentasuna | <ul style="list-style-type: none"> • Gramatikaren eta sintaxiaren erabilpena eta hiztegiko elementuen hautaketa. • Gramatika, sintaxi eta lexiko aldetik egindako akatsak, eta akats horiek testuaren ulergarritasunean eta egokitzapenean duten eragina. |

ARIKETA-MOTA DESBERDINEN ADIBIDE PRAKTIKOAK

Ariketen adibideak kontsultatu nahi izanez gero, web honetan daude: www.eoieuskadi.net

PROBA EGITEAREKIN ETA ADMINISTRAZIOAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT GAI

| | |
|---|--|
| <p>➤ Proba egin ahal izateko baldintzak Oinarrizko Mailaren Ziurtagiria lortzeko Proba egin ahal izateko, nahitaezko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialeko batean matrikulatuta egotea dagozkion hizkuntzan.</p> <p>➤ Deialdiak Deialdi bakar bat izango da eta irailean egingo da.</p> <p>➤ Proba ezintasunen bat duten pertsonen egokitzea Proba ezintasunen bat duten ikasleek dituzten behar berezietara egokitu daiteke.</p> | <p>➤ Proba berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea. Antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren arabera –bertan zehazten da zein diren ikasleen eskubide eta betebeharrak– edozein ikaslek, bai ofizialek eta bai libreek, uste badu ebaluazio-prozesua ez dela egokitu araudian ezarritakora, proba berrikusteko eskaera egin ahal izango du azterketa egin duen Hizkuntza Eskola Ofizialean, eskola bakoitzak aurreikusitako egutegia errespetatuz, betiere.</p> <p>Dagokion departamentuak azalpenak emango dizkio interesatuari.</p> |
|---|--|




Gomendio batzuk

| Probaren aurretik | Proban zehar |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Gogoratu HEOeko agiria eta NAN, pasaporte eta edo nor zaren egiaztatuko duen beste agiriren bat aurkeztu beharko duzula azterketako gelan eskatutakoan. • Ziurtatu probaren eguna, ordua eta gela, eta antolatu garaiz iristeko. Gogoan izan behin proba hasitakoan ez dela inor onartuko gelan. | <ul style="list-style-type: none"> • Behar bezala antolatu eta banatu ariketa bakoitza egiteko dagoen denbora. Denborak kalkulatu daude eta ematen du astia ariketa bakoitza egiteko. Komenigarria izaten da errepasso orokor bat ematea eta egon daitezkeen akatsak zuzentzea. • Letra argia erabili ariketa osoan. Zuzentzat emandako erantzunak argi geratu direla ziurtatu. • Arretaz irakurri ariketa eta zati bakoitzerako emandako argibideak. • Garrantzitsua da lasai egotea eta proba egiteko ematen diren argibideak arretaz jarraitzea, batez ere Ahozko ulermenaren zatian. |

INDARREAN DEN ARAUDIA

Oinarrizko Mailari dagokion Ziurtagiria lortzeko Probak legean eta administrazioan arauturik daude, ondorengo lege eta agirietan, hain zuzen:

- **2/2006 Lege Organikoa, 2006ko maiatzaren 3koa.**
- **1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa.** Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarrizko ertzak finkatzen dira dekretu horren bidez. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Hizkuntzen Irakaskuntza Berezien artean prestatutako Oinarrizko Mailari dagokion Curriculumua.**



Probaren maila

- Oinarrizko Mailako probaren maila abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuan zehaztutakoa da. (Urtarrilaren 4ko EBOan argitaratu zen dekretua). 2. Art.: *Oinarrizko mailaren curriculuma zehaztean eta maila hori gainditu izana egiaztatuko duten ziurtagiriak arautzean, Hezkuntzako Administrazioek Europako Kontseiluko A2 mailari dagozkion gaitasunak hartuko dituzte erreferentziatzat, Hizkuntzentzako Europako Erreferentzia-Marko Komunean maila hau zehazten den moduan.*
<http://www.boe.es/boe/dias/2007/01/04/pdfs/A00465-00473.pdf>
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Hizkuntzen Irakaskuntza Berezien Oinarrizko Mailari dagozkion Curriculumua.
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dic6/eu_2046/c6_e.html

Informazioa.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hizkuntza Eskola Ofizialen Web orria.
www.eoieuskadi.net

Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren Web orria. Web nagusitik irits daiteke horietara.

